

KURSAAL ETA ESTRAPERLOA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Donostia, 1934ko irailaren 12a. Gran Kursaal kasinoan Straperlo izeneko bi erruleta mekaniko jarri zituzten abian. Makina haiei bultzatzaileen abizenen hasierak batuta jarri zieten izena: Daniel Strauss, Joachim Perlowitz eta lehenengoaren emazte Frieda Lowann –beste iturri batzuen arabera, gailua bataiatzerakoan soilik bi gizonezkoen abizenak izan zituzten kontuan, emaitza berdinarekin–. Herbeheretar judu hirukoteak aurrekari ilunak zituen zorizko jokoen esparruan eta, gainera, Espainian joko debekatuta zegoen 1924tik, Primo de Riveraren diktadura garaitik. Bigarren Errepublikan ere hala jarraitu zuen. Eta, hala ere, eroskeria medio, Straperloak Donostian martxan jartzea lortu zuten.

Badirudi iruzeko erlojuak eta dirua banatuz erosi zituztela baimenak eta, gainera, hainbat karguduni irabazien ehuneko bat jasotzea eskaini zietela. Gerora Straussek deklaratu zuenez, Madrilgo gobernuan zegoen PRR alderdiko buru Alejandro Lerrouxek %25 jasoko zuen, handik gutxira Kataluniako gobernadore nagusi izendatu zuten Joan Pich i Ponet %10, eta beste hiruk, tartean Lerroux beraren ilobak, %5na.

Horrenbestez iraileko arrats hartan hasi zen bolatxo bueltak eta hiru ordu



Donostiako Gran Kursaal kasinoa. 1934ko irailean Straperlo izeneko iruzurrezko bi erruleta jarri zituzten bertan. Hortik dator “estraperlo” hitza.

geroago gelditu, polizia, pistolak erakutsiz, Zurriola ondoko kasinoan sartu zenean. Erruletak hamahiru zenbaki besterik ez zituen eta, beraz, jokalariek beste joko batzuetan baino aukera gehiago zeukaten irabazteko. Teorian behintzat. Praktikan, hasi eta berehala konturatu ziren bertaratutakoak bankua nahi beste irabazten ari zela; croupierak nahi zuenean geldiarazten zuen gupila botoi bat sakatuta.

Straperloa iruzur baldarra zela garbi geratu zen arren, handik hilabete ingurura Mallorcan, Formentor hotelean berriro jarri zuten martxan makina pare. Straussek adierazi zuenez, Francisco Francok berak erruletak jartzeko baimenean zeresana izan zuen, Balear Uharteetako komandante militarra baitzen garai hartan. Astebate iraun zuten hoteleko kasinoan, Herrizaintza ministroak egoitza xteko agindu zuen arte.

“Strauss eskandaluaren” itzala, ordea, luzea izan zen. Errepublikako gobernu kontsebadorearen gainbehera faktore askok eragin zuten, baina Straperlo erruletak izan ziren Biurteko Beltzaren akabua. Ustelkeria kasua 1935eko urrian eman zen ezagutzera publikoki, ezkerreko oposizioaren eskutik, itxuraz. Ondorioz, hilaren 26an, Chapaprieta ministroak dimititu zuen eta handik hiru egunera orduan ministro zen Lerrouxek gobernu utzi zuen. Hurrengo hauteskundeak Frente Popular koalizio ezker-tiarrak irabazi zituen.

Orduz geroztik, “estraperlo” hitza amarru, azpijoko edo iruzurren sinonimo moduan erabiltzen hasi zen. Eta gerraostean merkatu beltzeko jardura bihurtu zen estraperloa. Egun, definizio hau du hiztegian: “Legez kanpoko salerosketa, bereziki lehen mailako produktuekin eskasia garaian egiten dena”. ■



GREZIAKO KULTURA MINISTERIOA

Egipto, Aigyptos baino lehen

Antzinako greziarrek Egiptori *Aigyptos* esan zioten, eta erromatarrek, aldiz, latinez, *Aegyptus*. Eta hortik dator Afrikako herrialdearen egungo izena.

Estrabon (K.a. 64 edo 63 - K.o. 19 edo 24) geografo eta historialari greziarrak jaso zuen toponimoaren etimologia; haren arabera, izen horrek “Egeoaz harago” esan nahi du (*Aegaeon uptyōs*).

Baina hori baino lehen bertakoek bestela esaten zioten beren herrialdeari: *Kemet*. “Lurralde beltza” esan nahi du, urteroko ur goraldietan Nilo ibaiak uzten zuen lohi iluna zela eta. Lur emankorretatik haragoko eremuari, basamortuari, aldiz, *Deheret* eta “lurralde gorria” deitzen zioten antzinako egiptoarrek. ■